

OT-001-2016

Gaia: Bilbo Metropolitarrako Eremu Funtzionalaren LPParen berrikuspenaren hasierako onespena

Asunto: Aprobación Inicial de la Revisión del PTP del Área Funcional de Bilbao Metropolitano

Iradokizun zenbakia: **64**
Nork aurkeztu du: **Loiuko Udala**
Aurkezpen data: **2022/02/09**

Sugerencia N°: **64**
Presentada por: **Ayuntamiento de Loiu**
Fecha de presentación: **09/02/2022**

IRADOKIZUNAREN LABURPENA

Loiu-Zamudio plangintzak bateragarri egiteko eremuari dagokionez, uste da LPPan adierazten den esku-hartze publikoaren aukera, lurzoru horien garapena bideragarri egitekoa, ez litzaiekeela udalei egokitu behar, eremu horretarako xedatutako industriaguneen arteko bidea udalaz gaindiko elementua delakoan. Hori dela eta, proposatzen da Azterketa ekonomiko-finantzarioa eta egikaritze-programa deritzon dokumentuan lurzoruen jabeak eta Bizkaiko Foru Aldundia izendatzea bide-jarduketaren finantzatzaile.

Gainera, argudiatzen da ezen, Loiuko HAPOa eremu horretan (Dorrelanda) etenda dagoenez, haren aurreikuspenek lehentasunezko fluxu-eremu bati eragiten diotelako, Asua ibaiaren azterketa hidraulikoa egin beharko litzatekeela jarduketa egin aurretik.

Azkenik, adierazten da ezen, eremu horren garapena bideragarri egiterik ez badago, Bizkaiko Foru Aldundiak egin dezala industriaguneen arteko bidea.

IRADOKIZUNARI EMANDAKO ERANTZUNA

Larrondoren eta Ugaldeguren artean egiteko dagoen bide zatia ez dago foru-sarearen barruan, eta ez dago jasota Bizkaiko Errepideen Lurralde Plan Sektorialean; aitzitik, mugakide diren jarduera ekonomikoen sektoreen garapenarekin lotuta dago. Hori dela eta, une

RESUMEN DE LA SUGERENCIA

En referencia al Área de Compatibilización de Planeamientos "Loiu-Zamudio", se considera que la posibilidad de la intervención pública para viabilizar el desarrollo de estos suelos, señalada en el PTP, no debería recaer en los ayuntamientos por considerar que el vial interpolígonos contenido en el ámbito en cuestión es un elemento de entidad supramunicipal. Se propone, en consecuencia, que en el Estudio Económico Financiero y Programa de Actuación sean señalados como financiadores de la actuación viaria los propietarios de los suelos y la Diputación Foral de Bizkaia.

Se argumenta además que, estando el PGOU de Loiu suspendido en este ámbito (Dorrelanda) por afectar en sus previsiones a una zona de flujo preferente, se debería realizar un Estudio Hidráulico del Río Asua de forma previa a la actuación.

Se indica, finalmente, que en el supuesto de que no sea posible viabilizar el desarrollo de este ámbito, sea la Diputación Foral de Bizkaia quien ejecute el vial interpolígonos.

CONTESTACIÓN A LA SUGERENCIA

El tramo de vial pendiente entre Larrondo y Ugaldeguren no forma parte de la red foral ni está contemplado en el PTS de Carreteras de Bizkaia, sino que está ligado al desarrollo de los sectores de actividades económicas limítrofes, por lo que en el momento actual su ejecución no





honetan, errepideen arloan eskumena duen BFAko sailari ezin izango litzaioke egotzi.

sería atribuible al Departamento de la DFB competente en materia de carreteras.

Dorrelanda sektoriari dagokionez, URAk 2022ko maiatzaren egindako txostenean oinarrituta, ez da bateragarritasun-eremuan sartuko, erabat urpean gera baitaiteke.

Respecto al sector Dorrelanda, en base al informe elaborado por URA con fecha mayo de 2022 se descartará incluirlo en el ámbito de Compatibilización por ser totalmente inundable.

Zentzu horretan, Larrondoren eta Ugaldeguren arteko bidearen finantzaketaren erreferentzia eguneratu egingo da LPParen Azterketa ekonomiko-finantzarioan.

En este sentido, se actualizará la referencia a la financiación del vial entre Larrondo y Ugaldeguren en el Estudio Económico Financiero del PTP.

LURRALDE GARAPENERAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA LA DIRECCIÓN GENERAL DE DESARROLLO TERRITORIAL

